

Kosmodisea 2008-2009 | Fono Planeta | Lehen Hezkuntza (Neo Sistema)



Alfonso Guillo (Elgoibar Ikastola)

Neo Sistemako Lehen Hezkuntzan Elgoibar Ikastolako talde bat izan da puntuazio altuena jaso duena, Kosmodisea 2008-2009ko Fono Planetari dagokion etaparen barruan.

Alfonso Guillo ikasle-talde horren arduraduna da eta lan ona egin dutela jakinarazi dienean, *“oso pozik jarri”* omen dira.

Guillok adierazi duenez, zailena ez da izan programa informatikoak erabiltzea, ikasleei behar bezalako azalpenak eman eta irakatsi ondoren, ikasleek programak erabiltzeko nahikoa gaitasun eskuratu baitute. Grabazioa egiterakoan, ikasle bakoitzak bere papera ikasi ostean, *“intonazio eta ahoskera egokiak lortzea kostatzen zaigu, eta horrek entrenamendu pixka bat eskatu digu”*.

Alfonso Guilloren iritziz, Kosmodiseak alde positibo eta interesgarriak ditu. *“Teknologia berriak erabiltzea, lana taldean egitea sustatzea, auto-ebaluazioa edo informazioa bilatzen duzun bitartean gogoeta egin beharra. Gure kasuan, armak, gerrak eta bortizkeria nola gaindi daitezkeen pentsatzea izan da”*.



Guilok adierazi du, bere ustez, eta lehiaketaren formatu berbera erabiltzen jarraituko balitz, *"zortzi eta bederatzire urteko ikasleen gaitasunei egokitu beharko litzatekeela, ikasleen protagonismoa mantenduz. Orain, irakaslea da hizkuntzaren moldapena eta sinplifikazioa egitearen arduraduna, taldeak sortuz eta antolamendua erraztuz."*